

ANTZERKI FORUMA

GAIK ETA PROIEKTUAK

GUKA, ESKOLAN BALIO ETIKOAK SUSTATZEKO ANTZERKI FORUMA

Hamar urteko ibilbidearekin, proiektu hau Baketiken egitasmo nagusietako bat da. 640 ikastetxe eta 26.000 ikasle baino gehiagok gozatu dute lantegi honetaz 2007an abian jarri zenetik, eskolan jarrera biolento eta arrazistak saihesteko programa zabal batean.

Baketiken metodologia atzerki-forum saioetan egindako lanean oinarritzen da, baina eskola bakoitzean egingo den lana, ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitzen da. Ez da aukera bakar bat proposatzen, ibilbide bat baizik, eta ikastetxe bakoitzak erabakiko du ibilbide horretan zehar jaso nahi duen laguntza maila. Proposamen modular bat da, intentsitatean hazten doana, hiru mailatan antolatuta:

- Oinarrizko proiektua: atzerki-forum saio bat eta ikasleentzako lantegia.
- Proiektu aurreratua: aurrekoaz gain, ikasle eta irakasleentzako jarraipen lantegiak.
- Inplikazio altuko proiektua: aurrekoaz gain, familiekin lan-saioak.

KULTURARTEKO BIZIKIDETZAN BALIO ETIKOAK BULTZATZEKO ANTZERKI FORUMA

2008an martxan jarritako proiektua da, eta bere helburua da ikasleek desberdinen arteko bizikidetzan errespetuak eta berdintasunak duten balioa ulertaraztea, migratzaileen inguruko estereotipoak modu kritikoa identifikatuz eta gizatasun ukapenezko eraginak mugatzeko alternatibak ikusaraziz. Era berean, gune bat eskaini nahi da, ikasleek pertsona immigranteen aurkako jarreraren aurrean beste hainbat aukera esplora ditzaten.

ESKOLAN BIKTIMEKIKO ELKARTASUNA LANTZEKO ANTZERKI FORUMA

Euskal auzian euren eskubideak urratu dizkieten sufrimendu eta bidegabekeriaren aurrean elkartasuna lantzeko obra bat prestatua du 2009tik. Antzerki parte-hartzailearen bitartez, aktoreek, kasu honetan, anaia bana galdu duten bi biktimen bizipen testigantzak antzezten dituzte. Xehetasunei begiratuta oso desberdinak dira bi kasuak; baina saminaren sakontasunean eta galdutakoaren itzulezintasunean, euren kontakizunak giza sufrimenduaren erakusle unibertsalak dira.

BIDE-SEGURTASUNA SUSTATZEKO ANTZERKI FORUMA

'Norabide guztiak - Un cambio de sentido' lanaren helburua da gazteek bide-segurtasunarekin bateragarri diren jarrera eta ohiturak har ditzaten. 2012an abiatu zen proiektua, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren eta hainbat enpresen eskutik, eta orduetik 6.000 ikaslek baino gehiago hartu dute parte.

GAZTEEN ARTEAN AFETUZKO ETA BERDINTASUNEZKO HARREMANAK SUSTATZEKO ANTZERKI FORUMA

2008-2009 ikasturtean jarri zen abian eta proposamen honen helburua da gazteen arteko afektuzko eta berdintasunezko harremana bultzatzea eta jarrera arriskutsuak saihestea, horretarako antzerki foruma erabiliz. Gazteek ezagutzen dituzten jarrera, hizkera eta rolerkin lan egiten da.

GAZTEEN ARTEAN OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEKO ETA ALKOHOLA ETA BESTE DROGEN GAINEKO ARRISKUZKO JARRERAK GUTXITZEKO ANTZERKI FORUMA

Antzezlanak gazteek droga desberdinekin dituzten harremanak lantzen ditu, harreman eta adiskidetasun berrien aro izugarri bizkor horretan, non besteen aurrean ematen dugun irudiak berebiziko garrantzia hartzen duen.

Baketiketik prest dauka proiektu hau, baina ezin izan da martxan jarri finantziatorik lotu ez delako. Hainbat euskal administrazioari aurkeztu zaio, eta denek oso beharrezko ikusten dutenez oso balorazio ona jaso du egitasmoak, baina ez martxan jartzeko behar duen laguntza ekonomikorik.

BIZIKIDETZAREN ADISKIDETZA BULTZATZEKO ANTZERKI FORUMA

Donostia 2016 Fundazioaren eta Baketiken elkarlanetik sortzen da 'Eta hik zer?' lana, Euskal Herrian bizikidetzaren adiskidetzaren bultzatzeko proposamena. Prozesua luzea izango dela jakinik eta iraganeko, oraingo eta etorkizuneko galderei erantzun beharko diren premisa abiapuntu izanik, lantegia garatzeko balio duen antzez-lana hiru galdera hauetan oinarritzen da: zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Eta zer egin behar dugu etorkizunean berriro errepikatu ez dadin? Obra hau 16 urtetik gorakoentzat da. 2015 eta 2016 urteetan zehar ia 100 saio egin dira eta 2.000 lagun inguruk hartu du parte.